

Ttiki-ttaka


euskaldunon aldizkaria, 24. Zk.



aunkibidea


HERRIZ HERRI

Bastida	4
Biasteri	5
Lantziego	6-8
Lapuebla de Labarka	9-10
Mendabia	11, 12
Oion	13-15
Viana	16



ERREPORTAIAK

Gazteak eta euskararen erabilera	17, 18
Arabako Errioxan hizkuntza eskubideak	19
Supermintzalagunak	20
Laburbira	21
Gazteen elkarteak, elkarte gazteak	22-24
Oliba-olioaren III. Festa	25
Sonsierrako zeltizazioa: ustezko aztarnak toponimian	26-29



ELKARRIZKETA

Aitor Sarriegi	30, 31
----------------	--------

DENBORAPASAK

Asmakizunak, hieroglifikoak, txistek...	32, 33
---	--------

NON GOGOA, HAN ZANGOA

EKA eguna	34, 35
-----------	--------

Gure Ahuleziak Indartsu Egiten Gaitu

Azken 35 urteotan ikastolak eta euskateltziak euskara berreskuratzen, gure artean izan zen hizkuntza berriro eskuratzen, etengabe aritu dira lanean Arabako Errioxan eta Vianan. Beti modu positiboan landu izan dugu euskara, erakutsi egin dugu, aukera eman dugu... ezer eskatu eta exigitu gabe. Aurten ere, lan baikor horren erakusle izango dugu Lapuebla de Labarka, urte osoa lanean aritu baitira Araba Euskaraz eder batez goza dezan gure inguruak. 35 urte pasako ibilbide horretan, ordea, erasoak ez dira falta izan: euskaltegiari laguntzak murrizten urtetik urtera, baldintza zorrotzagoak ikasleekin, bekarik ez...; ikastolei ere dirulaguntzak kendu, gelak murriztu nahi...; duela ez asko hainbeste kostatuko euskara teknikariak desagerrarazteko saioa ere egin dute; eta, orain, pastelaren ginda izan dugu: Oiongo Ikastolari dirulaguntza kendu nahia agertu du Oiongo Udalak. 35 urte daramatzan ikastola kolokan jarriko lukeen diru kenketa; gainera, dirudienez, legez (eta gizalegez askoz gutxiago) egin ezin duenez, enpresa bat kontratatuko du udalak dirulaguntza hori nola kendu aztertzeke.

- Zergatik jarraitzen dute oztopo, eraso eta trabak jartzen gure hizkuntzaren berreskurapenean?
- Zergatik ibili behar gara “eskatzen”, “salatzen”, gure eskubideak bermatzeko?
- Zergatik da hain erraza euskaltegiei, ikastolei, euskarari eraso egitea?
- Zergatik ez da egiten gure eskualdeko egunerokotasunean erasoen tamainako defentsa eta ia lau hamarkada pasa eta gero sarritan sentitzen dugu hasierako

ezegonkortasunean bizi garela? ikus Oiongo Ikastolako adibidea.

- Zergatik esaten dute alderdi guztiek euskararen alde daudela, baina agintean daudenean ez da aldekotasun hori gauzatzen?
- Zergatik ez dakite euskaraz gure eskualdeko agintariek?
- Zergatik lotzen da gero eta gehiago euskara ikastea titulu bat lortzearekin?

Galdera asko, beharbada gehiegi. Hala eta guztiz ere, ekainean helduko zaigu Araba Euskaraz Lapueblara, denok hitz egingo dugu euskararen alde, erabileraren alde, zenbat egin dugun aurrera azken hamarkadetan... baina ekainaren 16an, jaiaren ajearekin batera Arabako Errioxako euskararen normalizazioaren malda aurrean izango dugu.

Ttiki-ttakan, ohi bezala, alde positiboa landuko dugu: gazteentzako begirale ikastaroak, ume eta gazteentzako tailerrak, irakurri euskaraz kanpaina, euskal kultur asteburua. Aldi berean, ordea, garbi izan behar dugu euskararen berreskurapena norbanakoen borondatearen gain utzita, ahul gaudela etsaiaren aurrean. Beraz, ez dugu besterik gabe pasatzen utzi behar kartel bat bera ere gaztelera hutsean badago, salatu egin behar dugu, ezin da hain merkea izan euskarari erasotzea.

Ea kapaz garen Araba Euskaraz jaiak ematen digun aldeko indarrak baliatuz anbiguetate eta hipokresia jarrerak baztertu eta konpromiso betetako urratsak emateko, norbanako urratsak, urrats kolektiboak, urrats instituzionalak, baina... konpromiso zehatzez betetako urratsak.

bastida.....

Olio Dastaketa Bastidan

Aurtengo Araba Euskaraz girotzeko herri ezberdinetan hainbat ekintza burutu dira. Horietako bat apirilaren 12an Bastidan egindako olio dastaketa izan zen.

Ekintza honen antolatzaileak, Assa ikastola (Araba Euskaraz 2014ko arduradunak), Bastida ikastola eta “Mesa del aceite y el olivo de Rioja Alavesa” elkarteko Iker Díaz de Cerio izan dira.

Kata Bastidako kulturetxean arratsaldeko 19:00etan izan zen. Partehartzaileak aldez aurretik izena eman behar izan zuten.

Bertako olibekin egindako olioak dastatzeko aukera paregabea izan genuen. Aldi berean, plazan, Araba Euskarazeko materiala salgai egon zen: arropa, *pendrive*-ak, pultserak, ardoa eta abar.

Ordua egokia izan zen, herriko plazari bizitasuna, alaitasuna eta euskarari bultzada emateko.



biasteri.....

Denboraren Mezulariak

Segurutik badira aipatzeko kontu ugari Biasteriren inguruan, baina horiek bestelako publikazioetan jasotzen direnez, ez dugu gunea alferrik erabiliko. Dakarkizueguna, ordea, eskusiboa izaki, atsegín handiz aipatu nahi dizuegu. Izan ere, ez dugu ardoaz hitz egingo, ezta Udalaren asmo ederrez; ez eta turismoaren zifra eroez. Naturaz, eta kasu honetan hegaztiez, hitz egin nahi dugu atsegínez.

“Denboraren mezulariak” argazki erakusketa da, **Txepetxa** elkarteak gauzatutakoa. Berez, Gasteizko “Salburua” eremu ezagunaren inguruan egindako lana da, hegaztien migrazioaz hitz egiten diguna. Erakusketak hegaztien bizimodu, migrazio aztarna, ohitura, jokabide berezi, beraien ikerketarako erabiltzen diren teknika eta hauen emaitzen inguruan hitz egiten digu. **Brian Webster** eta **Pako Zufiaur** argazkilarien hegaztiarikiko pasioak, pazientzia itzelak, eta argazkilaritzaren ezagutza tekniko handiak, edertasun berezia duten izaki hegodun hauen ikuspuntu intimo eta xehe bat aurkezten digute beraiekiko begirune osoz.

Txepetxa Zientzi-Eraztunketarako Elkarteko kideek 16 urte baino gehiago daramatzate Araba eta inguruko lurraldeetan hegaztien zientzi-markaketa lanak burutzen. Urte osoko lana bereziki Salburua eta Ullibarri-Ganboako hezeguneetan burutzen badute ere, badituzte beste proiektu ugari Araba, Bizkaia, Nafarroa zein Kantabrian. Aipatzekoa da Biasteri inguruko **La Paul** izeneko aintziran egiten duten ardeiden markaketa lana.



TOKIA:
Biasteriko "Garcetas" etxea
DATAK:
maiatzaren 26tik ekainaren 12ra
ANTOLATZAILEAK
Ttiki-ttaka eta Txepetxa

Brian Webster
"La Paul" aintziran egindakoa

Lantziego.....

Arabar Errioxako I. Dantzari Eguna

Lantziegon egun berezia izan zen apirilaren 12a, izan ere, lehenbiziko aldiz ospatu zen Arabar Errioxako I. Dantzari Eguna.


Goizean hasi eta gaua arte ekitaldiak egon ziren: kalejira, dantza taldeen erakustaldia, dantza plaza, pintxo-potea trikitilariekin eta diskoteka.

Eta lehenbiziko jaialdi hau modu berezian hasteko, galduta zegoen dantza bat berreskuratu zuten Lantziegon, “La Pidona” izenekoa. Horretarako, herriko zaharrenei galdezka ibili ziren, eta horrenbeste urteren ondoren, berriz ere eskean ateratzeko erabiltzen zen kantu eta dantza berezi hau ikusgai izan zen herriko kaleetan zehar.

Honez gain, Arabar Errioxan dauden dantza talde guztiak bildu ziren egun berezia ospatzeko.



Dirudienez Lantziegon ikaragarritzko altxorra dugu eta orain arte ez gara konturatu. Bertako olio errota Euskal Herriko zaharrenetakoa da, gainera gisa honetako olio erroten artean funtzionamenduan dabilen bakarra da; museo bat izan zitekeen beste guztiak bezala, baina urtero abendua aldera martxan jartzen da Lantziegoko herritarren olio egiteko. Gutxi izango balitz bezala, bertan ekoizten den produktua olio hutsa da, inolako gehigarririk gabekoa.



Bere jatorria bere historia bezain bitxia da; aintzinean irina ehotzeko errota izan arren, olio egiteko ere erabiltzen zen garaiaren arabera. Bere jabea, Eustaquio Alvarez de Eulate jauna zen, herrian bizi zen fraidea. Errotaz gain, bere jabegoen artean gaur egun parkea den hortua zegoen. Ondare hau 1913an udaletxeari utzi zion, Lantziegoko herritarren probetxurako. Orduzkerotik bere kudeatzailea udaletxea da, eta erabilera ere bertako biztanleena; izan ere, norberak jasotako olibak bertara eramane eta horren arabera olio litro jakin batzuk jasotzen ditu.

Olio hau lortzeko moduari dagokionez, guztiz primitiboa da, aurrerapen teknologikorik gabekoa; hemen kalitatearen gakoa dago, hain zuzen ere.

Abenduan uzta jasotzeko garaia izaten da; norberak fruituak garbi eramaten ditu eta tobera batean botatzen dira. Zuzenean hiru pieza konikodun errota batera erortzerakoan,

honek birak ematen dituen bitartean, oliba zein hezurra txikitu egiten ditu. Aintzina urak mugitzen zuen hau, gaur egun, aldiz, motor batek mugiarazten dituen polea eta uhal batzuei esker mugitzen da. Sistema oso zahar eta bitxia.

Ondoren nahaspila mugitu eta berotzeko asmoz, italiar jatorriko beste harri handi biribil batek berriro ere zapaltzen ditu. Orduan prentsatzeko moduan utzi egiten du.

Jarraian, bertako langileek prozesu honen ondoren sortu den produktua ontzi batzuekin "Kapatxo" izeneko espartozko pieza biribil batzuetan jartzen dute, eta hauek bata besteraren gainean gurrildun plataforma batean kokatzen dira. Presioaren ondorioz olioaren lehen tantak sortzen dira. Bukatzeko, prentsan sartu eta orduan benetako olio sortu egiten da "kapatxoek" osatzen duten zutabe horietatik behera eroriz ur jauzi bat izango balitz bezala. Olio, azkenik, depositu batzuetan sartzen da urarekin nahastuz garbitzeko asmoz, eta dekantazio naturalaren sistemaz urarekin banandu egiten da; beraz, kontsumitzeko prest egongo da eta depositu batzuetan mantentzen dute herritarren artean banatu ahal izateko.

Argi eta garbi ikusi daitekeenez olio hutsa da. Inolako produktu kimikorik gabekoa bada ere, norberaren kontsumorako besterik ezin da erabili, sistema honek osasun autoritateen arauak ez ditu betetzen eta.

Tiki-tika 2014

Sortutako hondakinak ere probetxuzkoak izaten dira; erregai bezala erabiltzeko eramaten dituzte beste zonalde batzuetara.

Eraikinean bertan tresneri guzti honetaz gain, duela gutxi berritutako kalatu ikusgarri batzuk aurkitzen dira: Nafarroako iparraldetik etortzen ziren harginak harri izugarri handiekin egindako korridore eta arkuak, aurretik upategi gisa erabilitakoak. Are gehiago, antzina, bertan, elurtegi bat omen zegoen beraz, historia handiko lekua da. Kanpokaldeko horma ere baseliza batena izan zen.

Egun, iritzi ezberdinak daude honen inguruan: batzuen ustez, museo bihurtu beharko litzateke; beste batzuk, berriz, olioaren kalitateari erreparatuz, funtzionamenduan jarraitzeko eskatzen dute, orain arte egin den bezala. Dena den, gaur egun bi funtzio hauek betetzen ditu: bisitatzeko aukera dago eta Lantziegon betidanik kontsumitu den olioak ekoizten da, hortaz, horrela jarrai dadila.



Iapuebla de labarka.....

Ekainaren 15a Ate Joka

Araba Euskaraz 2014 antolatzea orain ia urtebete egokitu zitzaigun, eta ordundanik gaur arte hamaika ekitaldi, hitzordu, kontzertu, eta abar antolatu dugu. Egun handia ate joka dugun honetan atzerantz begiradaxoa botaz gero, bertigo pixka bat eta guzti sentitzen dugu.



Euskal kulturaren alorreko hainbat pertsonaia adierazgarriekin elkarrizketak edukitzeko aukera izan dugu. Besteak beste, gogoan ditugu oraindik ere **Nestor Basterretxea** eskultoreak eskainitako jakituria eta animo hitzak nahiz **Kike Amonarrizek**, ETBn duen *Tribuaren Berbak* saioaren baitan, egindako lana.

Horren ondotik, Txoritxoa Munduan kanpaina abian jarri genuen. Nork esango zigun guri baita **Masaieen tribuak** ere gure

kamisetak jantzita ikusiko genituenik? Nork, tokiotar batek gure sudadera jantziko zuenik edota Maldiva irletan ere ikusiko genuenik txoritxoa txioka eta bizi-bizi? Eta, are garrantzitsuagoa dena, nork esango zigun guri horrenbeste jende mobilizatzea lortuko genuela argazki hauek eskuratzeko? Mila esker hemendik parte hartu duzuen guztioi, zuek gabe ezinezkoa zatekeen-eta.

Txoritxoa munduan barrena barreiatu ahal izateko, denda ere martxan jarri genuen: kamisetak, sudaderak eta bestelako materialak salgai. Bertako jendeari aurtengo materiala erakutsi asmoz, desfile mundiala ere antolatu genuen! Oso egun polita izan zen; ikasleak Araba Euskarazeko materialekin jantzi, eta profesionalak bailiran, hor izan genituen ikastolan desfile paregabea egiten.

Lurralde hauetan hain preziatua den zukua ere eduki dugu salgai: Arabako Errioxako ardoa, alegia. Munduko txoko desberdinetara iritsi dira gure produktuak, eta, beraz, baita gure filosofia ere: festa honek guretzat dituen helburuak, zergatia.

Durangoko Azokara ere iritsi ginen abenduan Assa Ikastolako ikasleekin batera. Ikasleentzat eta ikasleengatik egindako festa honetan, ezinbestekoa da haiek konplize bihurtzea, eta, hala, euskal disko eta liburuen azokara joan ginen; han protagonistekin argazkiak atera genituen eta gure mezua zabaltzen jarraitu genuen.



Tfiki-ffaka 2014

Hamlet antzezlanaren ere eskaini genuen euskaraz Agurainen. Araba Euskaraz 2014 delakoaren eta Assa Ikastolaren helburuetako bat euskal kultura barreiatzen jarraitzea da, bai eskualde honetan, bai ondokoetan, eta, hala, **Shakespeare**ren antzezlan polit hau ikusi ahal izan genuen orain hilabete batzuk.

Publiko desberdinetara iritsi nahi genuen, halere. Kultura hainbat aldeko poligonotzat dugu Assa Ikastolan, hori dela eta, rockak ere badu toki bat gure artean. Rock Festival itzela antolatu genuen; ikasle ohiez eratutako taldeek nahiz kanpotik etorritako batzuek jo zuten bertan, *Ardelhatxa*, *Paranoia*, *Arkada Social*, *Anabasa* eta *EH Sukarra* mitikoek ere bai, *Akerbeltz* taldearekin erronkeri modura amaitzeko.

Rocka ez ezik, *Akustik Bira* delakoa ere izan genuen. Musika intimistagoa, taberna edota areto txikietan entzuna, eta bertako taldeekin egina. Kontzertu oso onak ikusi ahal izan genituen eskualdeko herri ezberdinetan, hain zuzen ere, Oionen eta Eskuernagan kasu honetan.

Diaporama saioak ere eskaini ditugu eta horiei esker Mañuetaraino iritsi. **Koldo Zubizarreta** eduki dugu gure artean, *Karakorum bizikletaz* saioa eskainiz. Bidaia paregabe horretan ateratako argazkiez gozatu ahal izan dugu, hark emandako azalpenekin batera, noski.

Araba Euskaraz ezin zen, ordea, erabateko jaia izan, abestirik eta bideoklipik gabe. Ondorioz, *Kometa* taldeak, ikasle ohiez eraturikoa, lanari ekin zion gogor eta abesti paregabea oparitu zigun. Bideokliparen lanak beste ikasle ohi baten zuzendaritzapean geratu ziren. Assa Ikastolak uzta politak eman dituela ikusi ahal izan dugu bide honetan.

Horiek aurkezteko ekitaldia ere egin genuen Gasteizko Jimmy Jazz aretoan, hain zuzen. Aurkezpena eta gero *Kometak* eta *Xaikok* jo zuten guztion gozagarri.

Maiatza hasieran jada, bertso bazkari mundiala izan genuen, Viñaspre, Arzallus, Lujanbio, Arrietuonandia eta Elortzaren eskutik. Punta-puntako bertsolari hauekin egun-pasa egin genuen primerako jakiez gozatu eta gero. Eta maiatza erdialdera Assa Ikastolako Lagunen bazkaria ere ospatu genuen, hain zuzen ere ikastolarekin zerikusirik eduki duen edota egun oraindik duen ikasle, irakasle eta pertsona orori eskainia.

Eta horrela, egunak joan egunak etorri, eta ekitaldiak joan, ekitaldiak etorri, ekainaren 15aren ateetan kokatu gara. Polita litzateke urtean zehar egindako lan guzti hau borobiltzeko igande horretan jende asko bertaratzea, gurekin euskara mugan benetan bizi dagoela ospatzera. Ziur gaude azken erronka horretan lagundu egingo gaituzuela. Mila, mila esker bihotz-bihotzez alde zuretik.



Handia da Mendabia mehatxu egiten duen proiektu Hidroelektrikoa. Erraldoia bere zentzugabekeria. Ia kasualitatez, N.B.O.ren (Nafarroako Boletin Ofiziala) bidez ezagutu zen TINDAYA RENOVABLES S.L.ren asmoa. Enpresa honek 99m³/seg-ko ur kontzesioa eskatzen dio CHeri 9.950 kWa-ko potentzia duen zentral hidroelektrika bati hornitzeko. Ez da gauza makala, eta are gehiago presa eta kanalaren neurriei erreparatzen badiegu: Porlanezko presa 175m-koa izango da, eta kanala ikaragarria: 8 km luzera, herriko baratza tradizionala zeharkatuko duena punta batetik besteraino; 51m zabal (ulertzeko: Nafarroako kanalak 30m ditu); honi gehitu behar zaskio alboetako 5metroko bi bideak (osora 60m baino gehiago!) eta 6,6 m sakonera. Hauexek datu nagusiak dira, eta Ebroko ur eta zalduetan nahiz herriko paisaia eta bizimoduan ondorio latzak ekar lituzketenak.



Inguru giroaren aldetik ez dago onartzerik. Emaritsua izanda ere, presak kanaleruntz desbideratuko duen ur kopurua oso handia da Ebrorentzat, eta kalteak halabeharrezkoak. Ibaiaren ur galerak eraginez ekosistemek kolpe handia jasoko dute. Habitat asko desagertuko dira eta hor bizi diren ehunka espezien bizi baldintzak estu zailduko. Arazo hau larriago bihurtzen da kontuan hartzen badugu heltzen diren isurien urarekin nahasteko gaitasuna murrizten dela. Esate baterako: Arrubalgo "Central de Ciclo Combinado"tik datozenak. Hauetako batzuk errefrijerazio prozesuetatik ateratzen dira eta ur beroketa sortzen dute. Ur emaria txikiago izanik ibaiaren T^a asko handitu liteke eta

horrek kalte handia sortu arrainengan. Beste adibideak Arrubalgo industrialdeko eta Mendabiako araztegiak dira. Isuriak ez dira beti nahiko genukena bezain garbiak, eta, batzuetan, kutsadura maila serio daukate. Ur eskasiak uren estankamendua sortzen du eta sustantzia kutsakorren eragina indartsuago bilakatzen da.

Ura desbideratzen den puntutik berriro ibaiara itzultzen den punturaino Ebroko 11 kilometroetan eragina izango du. Errioxako eremu hau RED NATURA 2000an LIC "Sotos y Riberas del Ebro" jasotzen da bere ekosistemen garrantziarengatik. Habitat multzo honetan ehunka espezie aurki daitezke. Arrainen artean aipatzekoa da "Pez Frailea" desagertzeko zorian dagoena, ugaztunen artea: Igaraba, basokatua edo Europatik jarraipen berezia duen Bisoi Europarra. Hegaztinetan Arrano eperzalea bizi da. Hau ere penintsulako hegazti mehatxatuenetariko bat da eta oso urriak dira bikote iraunkorrak Nafarroan edo Errioxan. Saguzaharrak, dordokak, sugeak, karramarroak eta lizar, txopo eta zumezko erriberako basoak... Eremu hau biodibertsitatea aintzat hartuta, zalantzarik gabe, Errioxako garrantzitzuenetako bat da.


Tfiki-ffaka 2014

Energiaren arloari dagokionez, ez dago justifikaziorik. Tamaina honetako proiektua aurrera eramateko larrizko energia beharra pairatu beharko genuke, eta ez da horrela. Errioxan, zein Nafarroan gastatzen duguna baino gehiago sortzen dugu; ez dugu zertan jaso horrelako azpiegitura, batez ere, onuradun nagusia enpresa promotora bera dela kontuan hartuta. Eta energia behar-beharrezkoa izango bagenu, beste alternatiba sostengarria batzuk bilatuko genituzke. Adibidez, zentral hidroelektrika honek ekoiztuko luken potentzia, haize-errotak gutxi edo eguzki-baratzak batek sortzen dute, eta azken hauek, gainera, desmuntatu daitezke behin bere jarduerara amaituta. Kanalak, ordea, betirako iraungo luke.

Esan behar da 8km-ko kanalak herriko baratza tradizionala zeharkatuko duela eta nekazaritzan eragina izango duela; ez bakarrik lur suntsiketarengandik, akuiferoaren mailaren jaitsiera gertatuko da luraren kalitatearen kalterako. Era berean, iturri batzuk lehortuko lirarteke eta nitratoek sortutako kutsadura areagotu daiteke. Horretaz gain, kanala Mendabiako paraje estimatu batzuetatik pasako da, Legarda eta Labarcarako errepidetik, esaterako. Hauetatik egunero hamaika lagun pigarotzen da lanera, paseatzera, jolastera... gainera, herriko erromeria bertan ospatzen da, Legardan, hain zuzene ere. Beraz, paisaian eta eguneroko bizimoduan aldaketa bortitza gertatuko da.

Zorionez, ez gaude bakarrik eta helegite asko aurkeztu dira makroproiektu honen aurka. Errioxako Ekologistak Martxan eta Errioxako Gobernuak gogor kritikatu dute proiektua eta aurkako jarrera finkoa hartu dute. Nafarroan ere badugu sostengua, eta asko izan dira helegiteak aurkeztu dituztenak. Guk ez ezik, URA-Nueva Cultura del Agua, AEMS. Rios con vida edo Yesa+NO elkarteek egin dute.

"Canal NO" taldetik lanean tinko jarraituko dugu hau galarazteko. Orain arte zentzugabekeria honi buruz informatzea izan da gure lana, eta orain sinadura bilketa hasi dugu. Erakutsi nahi dugu gehiengoak garelako aurka gaudenok eta Udalari eskatu Ebro eta Mendabia estaimatzen baditu, bertan behera utzi behar duela proiektu erraldoia.





Ikastola eta jasangarritasuna. **Zein da bi hitz hauen artean dagoen lotura?** Hezkuntza giza harremanetan oinarritzen da. Irakasleoi hezitze ariketa ikastolaren baitan aurrera eramatea egokitzen zaigu gehienbat. Ariketa honen nondik norakoak aratago doaz ordea, sarritan, ikastolako hormaz kanpo kokatzen diren gauzetaz aritu behar dugularik. **Helburua?** Etorkizunean gurekin egon direnak gizabanako zorientsu, osasuntsu eta arduratsu bilakatzea. Bai, **ARDURATSU**. Izan ere ideia honetan errotua ulertzen dugu guk ikastolan eta gure gizartean ingurumenarekiko daukagun harremana. Egunerokotasunean jasangarritasunerantz ematen ditugun pausuek norabide bat jarraitzen dute. **Helmuga?** Hitz bakar batez adieraztea zaila egiten zaigu, baina bertara iristeko funtsezkoa den iparrorratza hitz bat adierazten du: **ARDURA; Bai, baina zerekiko?**

- ingurumenarekiko ardura. IUCN[1]ren arabera 10000 eta 50000 espezie galtzen dira urtero, betirako, ez dago atzera pausorik honetan. Milioika urteko garapen ebolutiboa minutu batean suntsitzen dugu. Horrelako fenomenoaren aurrean, gure erantzuna garbia da eta ardura du hizpide, gure bizimodua eta bizitza bera bateragarri bilakatu behar ditugu.
- gizartearekiko ardura eta hurrengo belaunaldiarekiko ardura: San Bizente ikastolak garapen iraunkorarekin bat egiten duen hezkuntza-jarduera bat garatu nahi du. **Iraunkortasuna, bere osotasunean, belaunaldi honen eta ondorengo bizi kalitatea** ziurtatzeko ezinbesteko lan ildoan gaude. Hein batean planetaren bizi garen guztietara iristea ahalbideratzen duena. Gizartearen eta ingurumenaren premiei erantzuten die, ingurunea ulertu eta berarekin harreman osasuntsua mantentzeko gaitasunak ezarriz, ingurumenaren hobekuntzarekiko konpromezuzko jarrerak eta baloreak sustatuz.

Tfiki-ffaka 2014

- beste herrialdearekiko ardura: Mundu globalizatu batean bizi garela entzuten da han eta hemen, eta egia da. Mundu honek gosea eta pobrezia globalizatzen ditu behinik behin eta guk horrekiko ardura bat dugula sentitzen dugu, bete beharra alegia.

Ikastola honetan diharduten dugun irakasleok kontsumo arduratsuz, hondakin murrizketaz eta energiaren erabilpen eraginkorraz kezka nabaria agertu dugu eta honek gure egunerokotasuneko lana baldintzatzen du. **Zergatik esaten dugun hau?** Ingurunearekiko diogun begirunearekiko. Etorkizuneko gizartea hezitzen bidelagun ditugu lehen aipatutako ardurak. Eta ardura hauek eraman gintuzten duela bi urte **Eskola Agenda 21aren proiektuan** parte hartzeraz. Jasangarritasunarekiko dugun begirunea aurretik ere nabaria zen gurean, baina EA 21-aren dinamikan sartzek egunerokotasunean gauzatzen ditugun lan txiki horiei baliagarritasun berme bat eman die. Hona hemen proiektu honen barruan burutzen ari garen egitasmo batzuk: Eguzki plakak, baratze, hazitegia, konpostagailua, zuhaitzaren eguna, argia eta uraren erabilearen neurketa, saski ekologikoaren banaketa, ogi ekologikoa, birziklaturiko xaboi eta kartera tailerrak, merkatu ekologikoa, 2.eskuko merkatua, Rio Grande erreka uraren kalitatearen neurketa, paperen murrizketa, alarma berdea birziklapenean...

Eguzki plakak. 2006. urtean jarri ziren ikastolako teilatuetan. Horrela ikastolak kontsumitzen duen energia baino gehiago ekoizten du. Balantzea positiboa da beraz, eta bide batez, beste batzuk guk ekoizturikoa kontsumitu dezaten ahalbidetzen dugu.

Baratza ekologikoa eta hazitegia. 2009. urtean jarri genuen abian. Auzo lanean eraikia izan zen. Guraso, irakaste zein ikasleek egindako lanak fruituak eman zituela esan dezakegu beraz. Baratza elikatzeke hazitegiak prestatzen ditugu. Hauen kudeaketa eta baratzaren ureztatze lanak Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleen artean banatzen ditugu. Curriculum-ean txertaturiko ekintzatzat daukagu, non baratza arlo akademikoa aurrera eramateko esparrua bilkatzen dugun:

- Ikasleen eta naturaren arteko harremana sendotu egiten dira eguraldiaren fenomeno atmosferikoak jarraituz eta landareen prozesua hazietatik fruturaino biziz.
- Elikadura eta kontsumoaren inguruko hausnarketak bideratzen ditugu.

Zuhaitzaren eguna. Urtero aurrera eramaten saiatzen garen ekintza da. Bertako ekosistemara hurbilduz, ingurumenari diogun begirunearen adibide garbia da. Herri inguruan eta Santa Maria mendian arteak landatzen saiatzen gara batik bat.

Hondakinen kudeaketa eta konpostagailua. Eskola Agenda 21aren programaren baitan aurtengo ikasturtean jorratu beharreko gaia dugu zaborrarena. Ikasleak zaborraren sailkapenaren eta birziklapenaren protagonista bilakatu dira. Nola? Hondakinen kudeaketa arduratsua ahalbidetu duen **“Birziklapen txokoa”** eraikiz. Bertan papera, plastikoa, organikoa, errefuxa, boligrafoak eta tapoiak biltzen dituen ontziak prestatu ditugu. Baratza elikatzeke guk egindako konposta erabiltzen dugu. Egunerokotasunean, hamaiketakoak dakarren materia organikoa batu eta konpostagailura botatzen dugu ongari ekologikoa lortzeko. eta zakar mota hau birziklatzeak ziklo baten itxiera ekartzen du. Ikasleak jabetu egiten dira hondakinen lehengaiak eskuratzen lagundu dezaketela. Konpostagailuaren kudeaketa aurrera eramateko txandatan antolatu gara, ikastola sarreran organigrama batean ardurak norenak diren ikus daitekeelarik. Elkarlana eta ardura dira lanketaren ardatz eta helburu. Hau burutu aurretik sentsibilizazio kanpaina bat jarri genuen martxan. DBH 3. mailako ikasleek gainontzeko ikaskide

Tiki-taka 2014

zein irakasleoi mezu hau helarazi ziguten aurkezpen baten bitartez: Alarma berdea piztu da ikastolan, birziklapen ohiturak hobetu behar ditugu! **Sentsibilizazio kanpaina** honek izan zuen bestelako protagonista bat. DBH 1 mailako taldea hain zuzen ere. Hauek, matematika arloaren baitan hondakinen kudeaketari buruzko inkestak ikastolako 140 familiei pasa dizkiete, emaitzen grafikoak egin eta blogean jarri dituzte ikusi ahal izateko.

Energia eta uraren erabileraren neurketa. Argiaren gastuaren neurketa bat gauzatzen ari dira ikasleak. Era berean, sentsibilizazio kanpaina abian jarri dugu kartel ezberdinen bitartez, gure aldetik, irakasleen aldetik, doikuntzak egingo ditugu energia kontratazioa egokia izateko..

+Ogia, gailetak, barazki, fruitu eta arrautza fresko eta ekologikoak Oingo ikastolan dauden kontsumo talde bat osatu baitugu. Duela gutxi martxan jarri dugu ekimen hau. Astelehenero Alfaroko nekazari batek eta Logroñoeko okinak familiek eskatutako barazkiak eta... ikastolara ekartzen dizkigute.

+Azoka ekologikoa: askotan komentatu dugun bezala gure ikasleak kontzientzia ekologiko batean hezitzeko behar daukagu eta nola ez, produktu ekologikoak ere hurbildu behar zaie. Horregatik urtero azoka ekologikoa antolatzen dugu herrian.

+Bidezko merkataritza: jada, urte batzuk dira nazioarteko kooperaziori buruz kanpaina ezberdinak burutzen ditugula. Ikastolan merkatu bat jartzen dugu bai ikasleek baita irakaleek eta gurasoek parte hartzen dute.

Hau ikusirik, helburu orokorra, behinik behin, ikasleek komunitateak ingurumen hurbileko arazoak ezagutu eta ulertzea ahalbideratuko dien hezkuntza praktika gauzatzea litzateke. Ikusi dugu ingurumenaren zainketan denok dugula erantzukizuna eta norberak egiten duen gauzarik txikienak ere garrantzi handia duela.



“Ez dago B planik ez dagoelako B planetarik”
Mohamed Nasheed

viana.....

Erentzun Ikastola 1974/1975 ikasturtean sortu zen, beraz, aurten 35 urte betetzen ditu. 70. hamarkadaren bukaeran “ikastolara” joaten hasi ziren haurrak hazi egin dira, gaur egungo gurasoak bilakatzen ari direlarik.



Baina Ikastola ere hazi egin da, izugarri hiru hamarkada eta erdi hauetan: haurtzaindegi bakarra izatetik, Haur Hezkuntza (0-6 urte) eta Lehen Hezkuntza (6 – 12 urte) izatera pasatu da.

Oroz enparantzako lokaletatik eta Hoyoko oilotegitik Kuetoko eraikuntza berrira mugitu zen 92ko Nafarroa Oineza eta gero altxatutako eraikuntzara.

2006an lortutako legalizazioarekin, azkenean, ikastolak hazten jarraitu zuen eta vianarrok 2007ko Nafarroa Oinez festaren ospakizunaz apostu handia egin genuen; izan ere, ikastolak anpliazioa behar zuen eta Haur Eskola berria.

Gure ikasle ohien artean asko dira unibertsitateko ikasketak burutu dituztenak, eta gaur egun, gure inguruan nahiz atzerrian lan egiten dute. Hauetako batzuk ere geletara itzuli dira, baina oraingoan irakasle gisa!

Ikastola proiektu handia da Vianarako; kooperatibismoan oinarritua hizkuntz erdua hautatzeko aukera ematen du, aniztasuna zabaltzen du, berritzailea da eta hazteko eta hobetzeko borondatea du. Zorionak Erentzun Ikastola zure 35. Urteurrenean!



Gazteak eta Erabilera: Arabako Errioxako Mintzodromoa

V Inkesta Soziolinguistikoan (Eusko Jaurlaritza, 2013) jasotako datuek adierazten dutenez, azken 30 urteotan hizkuntza adierazle nagusiak aldatu dira: hizkuntza-gaitasuna, hizkuntzaren transmisioa, erabilera eta jarrera. Hizkuntza-gaitasuna, oro har, errotik aldatu da; gorakada nabaria izan du. Erabilerearen gorakada lurraldea zein den, gehiago edo apalxeago igo da (Gipuzkoan, esaterako, nabari igo da); berdin familia bidezko transmisioa. Kontrako jarrerak eta neutroak oraindik ere egon badaude, eleaniztasuna aberastasunaren sinonimo den garaian. Adierazle horiek guztiak kontuan hartuta, Arabako Errioxan nabarmen igo den adierazlea hizkuntza-gaitasuna izan da. Gazteen hizkuntza-gaitasunean irakaskuntzak eragin zuzena izan du, ezbaierik gabe. Helduenean, euskalduntze-alfabetatzeak.



Orain arte egindako lanek emaitzak eman dituzte: gurean euskarak testuinguru positiboago eta aldekoagoa du. Horren adibiderik nagusia da, nire ustez, hezkuntza bidezko transmisioa familia bidezkoarekin osatzen hasi dela. Bestelako adibideak egon badaude, baina hori iduritu zait adibiderik adierazgarriena. Aurrera pausoak eman ditugun arren, beti izan ohi dugun kezka erabilerearena da; zehazki, gazteen erabilera. Gazteek euskara gehiago erabili dezaten eta horretarako kontzientzia hartu dezaten hainbat ekintza eta ekimen egin izan dira eta egiten dira. Baina, gazteei galdetu al diegu inoiz zer iritzi duten gai honen inguruan? Kontuan hartzen al ditugu planak diseinatu eta garatzeko? Egia esan, maiz euskararen erabilerearen sustapena gazteen esku utzi ohi dugu haien iritzia edo parte hartzea kontuan izan gabe. Egoera horri aurre egiteko eta gazteak euskararen erabilerean eragile aktibo bihurtzeko, Lapuebla de Labrcako Assa Ikastolan MINTZODROMO bat antolatu genuen 2013ko abenduaren 15ean. Mintzodromoaren helburua izan zen adin desberdinetako gazteak elkartu eta

Tfiki-ffaka 2014

euskararen erabileraz hausnartzea gazteak xede talde izanik, haiengan sustatu nahi baitugu euskararen erabilera. Herri eta adin desberdinetako gazteak gerturatu ziren Lapueblara eta luzaroan hitz egin genuen euskarari buruz: euskarak Arabako Errioxan bizi duen egoera, gure ingurune huriblaren nondik norakoak, egunerokoan gure herrian euskaraz bizitzeko oztopoak, gazteen euskararen erabileran eragiten duten faktoreak eta egoera hobetzeko bideak.

Hausnarketa horretan arrotzak egingo ez zaizkigun hainbat ideia azaldu zitzaizkigun. Euskara ez erabiltzeko arrazoien artean, besteak beste, ohiturak, gaztelania erabiltzeko erraztasuna, ingurune erdalduna (administrazioa, aisia, kirola...) eta kontzientziazioa. Oztopo horiei aurre egiteko, zenbait ekintza zehatzez gain, bi lan-ildo nagusi aipatu ziren: eskolaz kanpoko eskaintza indartu beharra (kirola, kultura eta aisia) eta administrazioan euskarak presentzia handitzea. Ildo horiek 2014ko otsailean Arabako Errioxako Euskararen Aholku Batzordean zehaztutakoak izan ziren; are gehiago, 2014rako lehentasun gisa zehaztu ziren.

Lapuebla de Labarkan egindako mintzodromo hori oso baliagarria izan zen gazteekin maila berean lan egiten hasteko. Gure helburua da Arabako Errioxan euskara noiznahi eta nonahi erabili nahi duen gazteari horretarako aukerak eskaintzea eta prozesu horretan gaztea eragile aktibo bihurtzeko behar duen laguntza eskaintzea.

Gazteekin obsesionatuta gaudela pentsatzen duen inor egongo da, baina kontuan hartu behar da gazteek euskararen erabileran eta, oro har, euskararen normalizazioan zeresan handia dutela: haiengan dago euskararen ezagutzarik altuena eta urte batzuk barru familia transmisioa bermatu dezaketenak izango dira. Gaur egun ikastolatik pasatakoak hasi dira familia izaten edo, jada, izan dute. Batzuk ez dute zailtasunik izan euskara erabiltzeko, horretarako aukerak izan dituztelako (lagunarte euskalduna, bikotea, ikasketak, lana, e.a); ordea, beste batzuk ez. Bigarren talde horietako pertsonak izan dituzten oztopoak gainditzeko tresnak eta baliabideak eskaini nahi ditugu, gazteen parte-hartzearekin batera. 2014an beste bilera bat antolatuko dugu lehenengo mintzodromoko oinarria garatzeko; ohiko bideetatik zabalduko dugu deialdia eta gustatuko litzaiguke bertan parte hartzea. Beraz, jaso ezazu gure gonbitea.



2013an bi bilera izan genituen gai honekin, hobeto esanda tailer eta bilera bana. Lehenbizikoan jende askok hartu zuen parte, 50-60 lagunek, eta horietako 28ren izenak jaso genituen bigarren deialdian ere parte hartzeko. Baina, bigarrenean, 6 agertu ginen.

Datu ilun eta tristearekin hasi dugu artikulua, baina azal ditzagun, lasai-lasai, tailer eta bileran aipatu eta erabakitakoak.

Aurreneko tailer hura burutu genuenean helburu zera genuen: jendearen kontzientzia piztea. Horrela jendearen euskararekiko atxikimendua sustatuko zelakoan, eta, hartara, erabilera bultzatu. Tailerrrean Behatokiko zuzendaria, Garbiñe Petriati, izan genuen gure artean, eta munduko hizkuntzen egoerari begirada bat egin ondoren, Euskal Herriko egoera aztertu genuen; eta, azkenik, noski, Arabako Errioxakoa.

Argi geratu zen Arabako Errioxan ez zaizkigula errespetatzen berez ditugun eskubideak; ez udalek, ez anbulategiek, ez enpresek, ez diru publikoa jasotzen duten kultur elkarteek, ez diru publikoa jasotzen duten kirol elkarteek... Badira aldeak herritik herrira; herriren batean euskara ikasteko diru laguntzaren bat ere badute ikasleek... baina, oro har, euskaraz bizitzeko aukera gutxi dago, eta zerbait egin behar dela ondorioztatu genuen han bildutakoek. Halaxe, bigarren bilera batera deitzeko ardura hartu genuen ttiki-ttakakoek, eta, baita bigarren bilera horretara joateko prest zeuden 28 lagun izenak ere.

Bigarren saioa iritsi zen, ba, eta, badakizue hasiera: sei lagun besterik ez ginen agertu. Hala ere, sei horiek hitz egin genuen eta zenbait erabaki ere hartu genuen: Ttiki-ttaka elkarteak beti modu baikorrean landu izan du euskara, modu positiboan; esaterako, Administrazioaren aurrean euskaraz egiteko eskubidea eskatu eta exigitu ordez, instituzioak euskarara erakartzea izan da elkartearen helburua. Azken aldian, ordea, erabilera eskasa dela-eta politikari askorekin bildu da Ttiki-ttaka, eta askok eta askok gazteei leporatzen diete erabilera datu eskas horien errua: "Zergatik ez dute hitz egiten? Badakite eta!". Horiek eta halakoak entzunda, gure ustez Ttiki-ttakak lan-jarduera gogortu beharra du.

Elkartean askotan aztertu dugu zergatik ez duten-dugun gehiago erabiltzen, eta arrazoietakoa bat nabarmena da: bertako Administrazioak ez duelako kontuan izan euskara azken 35 urteotan, ez langileei eskatzeko orduan, ez langile berriak kontratazean, urte hauetan euskaldundu diren guztiak ere ez dira kontuan hartuak izan... euskara ez da sartu hemengo instituzio eta alderdi politikoen agendetan. Beste 35 urte jarraituko dugu instituzioetako jendea erakartzen?

Horrela, bada, bigarren aldiz Biasterin bildu ginenon ustean salatzeko ordua ailegatu da. Herri guztietan arduradun bat izatea metodo egokitzat jotzen genuen, eta horrek idatzi zezala errioxa@ikaeuskaltegiak.eu helbidera. E-mail horretan jasotakoak Elebide eta Behatokira bideratuko ditugu. Urte batera edo, izandako erantzuna aztertuko dugu eta ondoren erabaki aurrera jarraitu, nola...

Zer salatu ere eztabaidatu genuen; izan ere, salagarri dira instituzioak, kultur elkarteak, kirol elkarteak, 15 langile baino gehiagoko enpresak... Aurten, administrazioari erreparatzea erabaki genuen; dena dela, inork ikusiko balu kirol edo kultur elkarteren bat erdara hutsean ari dela, idatzi goian aipatutako helbidera, besteak bezalaxe bideratuko baitugu.

Maiatza bitartean bi herritan bakarrik izan dira salaketak: Lapuebla de Labarkan eta Oionen. Irakurle, ziur gara zure herrian ere ez direla euskaldunaren eskubideak bermatzen, sala ezazu, askoz argazki hobea aterako diogu Arabako Errioxari.



Arabako Errioxako Supermintzalagunak

Herri eta euskalkien arabera izen desberdinak dituen proiektua da, besteak beste, *mintzalagun*, *berbalagun*, *hizkide* eta *mintzakide*. Atzean antolatzaile mota asko dago: elkarteak, euskaltegiak edota entitate publikoak (mankomunitateak, udalak). Izenak izen, helburu nagusia berdina da: euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak euskaraz hitz egiteko ohitura ez duten pertsonekin elkartu eta euskaraz hitz egitea. Nolanahi ere, bestelako helburuak ere betetzen ditu: hitz egiteko lotsa galdu, kaleko euskara bereganatu, hitz egiteko maila hobetu, tituluren bat lortu, herriko edota eskualdeko euskal mundura gerturatu, euskara ikasten ari direnei praktikatzeko aukera eman, euskara maila mantendu, euskaraz bizitzeko aukerak ugaritu, herriko euskal giroa ezagutarazi, lagunak egin... Motibazioak, anitzak.




Gurean “mintzalaguna” deitzen da eta Euskal Herriko elkarten federazioak, Topaguneak, hartu du hemengo kudeaketa “Kuadrilletan mintza” izendatutako egitasmoaren bitartez. Dinamizazioa baina Arabako Errioxako euskaltzaleak eta Euskara Zerbitzua lantaldeak hartu du; horien arteko eragile bat da Ttiki ttaka elkarteak. Aipatu berri den “Kuadrilletan mintza” egitasmoan pertsona askok parte hartzen dute: Euskal Herrian, 5600 lagun; Araban, 1000 lagun pasatxo; Gasteizen, 650 inguru; eta Arabako Errioxan, 25 baino gehiago. Urtetik urtera handituz doan sarea osatzen ari da.

Gurean 6 dira 2013-2014 ikasturtean osatu diren taldeak: Lapuebla de Labarcan (bi talde), Oionen, Lezan, Guardian eta Bastidan. Leku eta ordutegi desberdinak dituzte, guztiak www.euskaramaitedut.com lantaldearen blogean argitaratuta. Datorren ikasturtean talderen batean parte hartu nahi izanez gero, jarri gurekin

harremanetan: Arabako Errioxako mintzalaguna (aemintzalaguna@gmail.com), IKA Errioxa euskaltegia (errioxa@ikaeuskaltegiak.eu) edo Euskara Zerbitzua (claguardia.lsueskun@ayto.alava.net).

Egitasmo honen garrantzia agerikoa da. Ikastolek eta euskaltegiak osatzen dituzten gure arnaguneen osagarri baita: euskara hegemonikoa da une horretan eta bertan parte hartzen dutenen hizkuntza ohiturak euskaraz sortu eta sendotzeko aukera asko dago. Arnagune horiek zabaltzea da guztion zeregina eta ardura euskararen normalizazioa lortu nahi bada euskararen eremu osoan. Lan horretan guztiok zeresana eta zeregina dugu: instituzioak, elkarteak, euskal hiztunak, erdal hiztun elebakarrak, familiak, kirol taldeak, eta abarrek.

Pasa den martxoaren 20an, Ttiki Ttakaren elkartearen eskutik Laburbiraren beste emanaldi eder bat izan genuen. Hamaikarren urtez egin da proiektu hau. Gurean bat gutxiago, lehenengo aldiari ez baikenuen antolatua. Bi helburu argi izanez sortu zen zirkuitoa: batetik, sormenaren bide ezkutua arakatu nahi ditu, eta, bestetik, Euskal Herriko ahal eta plaza gehienetan zabaldu. Aurten 29 herriko parte hartu dute (iaz baino 11 gehiago); marka ederra!!! Horien artean nabarmentzekoa da Parisko Euskal etxean emandako saioa.



Gurean 60 lagun inguru elkartu ginen, iaz baino jende gehiago Biasteriko zineman tarte eder bat pasatzeko asmoz. Azken urteotan jende kopurua gorantz doa eta horretaz oso harro gaude! 7 euskal film laburrez osatutako saioa izan zen: Abuztua, Aio, Euskaldun berriaren esketxa, Irudi mintzatuen hiztegi poetikoa, Marilyn, Plaza bakarra eta Sormenaren bide ezkutua. Historio labur hauek gai oso desberdinak jorratu zituzten; batzuekin gustura barre egin genuen, beste batzuekin, ordea, ausnartu. Misterioz beteriko historia ere egon zen. Sentimenduei buruz ausnartu zuena ere egon zen, eta nola ez gure kulturaren inguruan ikerketa egin zuena.

Aurten, zoritxarrez, ez genuen zuzendariaren bisitarik izan. Hala ere, ez genuen giro falta izan! Laburbirak gure artean harrera geroz eta hobea dauka, eta urte askotarako izan dadila! Aurten hurbildu ez bazinen, datorren urtean ezin duzu kale egin!



Gure euskualdean badira, zorionez, gazteek sortutako elkarte zenbait. Horien gainean gehixeago jakin nahirik haiengan jo dugu informazio bila.

KASIKOJOLABUBILLA (Lantziego)



Noiz sortu zen elkarte?

Orain dela 3 urte hasi ginen elkarte moduan, baina pasa den udara arte ez genituen paper guztiak ofizialki entregatu.

Zergatik sortu zenuten? Zein helbururekin?

Hasiera batean, herriko "kintoak" ospatzeko, txosna jartzeko elkarte bat sortu behar izan genuen. Baina, gaur egun, herritarrentzako ekintzak egiteko erabiltzen dugu.

Zer nolako ekintzak antolatzen dituzue?

Umeentzako eskulanak eta jolasak gehienbat. Batzuetan ere pelikulak jartzen ditugu eta mus txapelketa egiten hasi ginen uda honetan.

Herrian edo eskualdean elkarteari garrantzia ematen zaiola uste duzue?

Herrian bai. Herriko festak heltzen direnean, edo jaien bat antolatzen denean, beti kontuan hartzen gaituzte.

Zerbait aldatu nahiko zenukete zuen funtzionamenduan edo zerbait hartzen duzue faltan?

Ez, orain arte ondo moldatu gara. Gehienetan jendea animatu egiten da eta ekintzetan parte hartzen du, baina kexatzen dnik ere bada.

Zerbait berezia antolatzeko asmorik?

Agian Aste Santurako ekintzaren bat bururatzen zaigu, baina oraindik ez dugu ezer adostu.

OIONGO GAZTEAK (Oion)

ore Terroba eta Iban Santamariarekin, Oiongo Gazteak elkarteko bi kiderekin, bildu gara eta honako galdera hauek egin dizkiegu:



Noiz sortu zen elkarte?

Lehenengo aldiz 1992. urtean sortu zen baina 4 urtetan geldirik egon ostean berriro martxan jarri dugu 2013. urteko irailean, hain zuzen.

Zergatik sortu zenuten? zein helbururekin?

Oionen gazte asko gaude baina kuadrila bakoitza bere kasa ibiltzen da. Gazte batzuk elkartu ginen eta guztion artean elkarte bat sortzea ideia ona zela pentsatu genuen. Oiongo azken festak ez ziren oso onak izan; lehenengo egunean herriko gazte bat larri zauritu zuten, eta horren ondorioz irailean gazteok 2. jaiak prestatu genituenean, konturatu ginen gazteok biltzen garenean lan ederra egiten dugula.

Helburu nagusiak honako hauek dira: Oiongo gazteak

elkartu eta antolatu, aisialdi aktibo bat antolatzea guztion artean, gazteen beharrak azaldu eta entzun daitezen eta euskararen normalizazioan parte aktiboa izan.

Zer nolako ekintzak antolatzen dituzue?

Elkartearen ekintzak aisialdira bideratuta daude. Aisialdiaren barruan ahalik eta esparru zabalena betetzea dugu helburu. Jaialdiak antolatzeaz gain, monologoak, Euskal Herriko selekzioa ikusteko bidaia, sagardotegia, degustazioak eta abar egin ditugu, eta aurrerantzean bururatzen zaigun edozein ideia gauzatzen saiatuko gara (adibidez, kirolarekin zerikusirik duten jarduerak, drogari buruzko hitzaldiak, tailerrak...)

Herrian edo eskualdean elkarteari garrantzia ematen zaiola uste duzue?

Gazteen artean harrera oso ona izan du, bai Oionen eta eskualdean. Gazteok geroz eta motibatuago gaude, eta elkarte itxura ederra hartzen ari da. Instituzioen aldetik, zoritxarrez, oraingoz ez dugu babes berdina jaso. Aipamen egin behar diogu Yolanda Jimenez gizarte teknikariari, laguntza handia ematen baitigu.

Zerbait aldatu nahiko zenukete zuen funtzionamenduan edo zerbait botatzen duzue faltan?

Nahiko elkarte berria denez, oraindik gauza asko aldatu daitezke funtzionamendua hobetzeko. Hasieran juntakideak (7-9 pertsona) bakarrik biltzen ziren, orain, ordea, kuadrila (30 pertsona) bakoitzetik 2 bozeramaile joaten dira bileretara. Horrela, kuadrila guztien ahotsa entzuten da. Beste aldaketa bat adinarena izan da. Hasieran 14-30 urte bitarteko gazteentzat zen elkarte, baina konturatu ginen bazegoela jendea 30 urte baino gehiago zituena eta gogotsu zegoena parte hartzeko. Hau ikusita erabaki genuen adin topea kentzea. Faltan botatzen duguna gazteentzako lokala da. Elkarteari mesede handia egingo lioke bai bilerak egiteko baita jardurerak bertan aurrera eramateko ere; batez ere, gazteok herrian leku bat izateko eta erlazio momentuak areagotzeko.

Hemendik lasterrera zerbait berezia antolatuko duzue?

Hilabetero zerbait antolatzea da gure helburua. Ekainean blusaren eguna ozpatuko dugu eta Oiongo jaietan ere ekintzaren bat antolatuko dugu.

Elkarrizketa bukatzeko Oiongo zein eskualdeko gazteak animatu nahi ditugu gure elkarte ezagutzera eta bertako partaide izatera!

SORGINTXULO KULTUR ELKARTEA (Bilar)

Noiz sortu zen elkarte?

Elkarte 2003. urtean sortu zen.

Zergatik sortu zenuten? Zein helbururekin?

Bi helbururekin sortu zela esan daiteke:

Lehenengoa eta garrantzitsuena euskara lantzea. Horretarako herrian, eta, batez ere, gazteen artean euskararen erabilera eta normalizazioa bultzatzen zuten ekintzak aurrera eramaten genituen. Momentu honetan, herriko gazte gehienek euskara hitz egiten edo behintzat ulertzen zutela ikusi genuenez, ekintza gehienak hauenganai zuzendu genituen. Bestalde, bigarren helburua herrian ekintza kulturalak egitea zen.

Zer nolako ekintzak antolatzen dituzue?

Hasieran ekintza ezberdin asko antolatu genituen, besteak beste, hitzaldiak, tailerrak, kontzertuak, ikastaro txikiak eta zineforumak. Azken aldian hainbeste ekintza ez direla egiten esan beharra dago; egindakoen artean Korrikaren antolakuntzan parte-hartu dugu dugu. Urtean zehar egiten diren ekintzez gain, jaietan ere gauza ezberdinak egiten dira, eta azken bi urteotan eskualdeko futbol salako talde bat sortu dute elkartekideek.

Herrian edo eskualdean elkarteari garrantzia ematen zaiola uste duzue?

Hasiera batean herrian erreferente bezala ikusten zen elkarte, agenda kulturala gure esku zegoelako. Gaur egun errealitatea aldatu denez, eta geroz eta ekintza gutxiago egiten ditugunez, herrirako garrantzia galdu duela uste dugu, baina hala ere jaiak hurbiltzen direnean, kontuan hartzen gaituzte beti.

Zerbait aldatu nahiko zenukete zuen funtzionamenduan edo zerbait botatzen duzue faltan?

Ohartzen gara hasieran baino gutxiago egiten dugula, baina hala ere urtero egiten ditugun eta egin nahi ditugun ekintzak antolatzerakoan, funtzionamendu egokia dugula uste dugu.

Hemendik lasterrera zerbait berezia antolatuko duzue?

Apirilaren 12an Hernanira joan ginen sagardotegira, futbol taldeak larunbatero bere partiduak ditu eta gainontzekoak jaietan antolatzea espero dugu.



Arabako Errioxako Oliba Olioaren III. Jaia berriz ere arrakasta bat suertatu zen. Aurten Oion ere Oionen hasi ziren festa honen ekitaldiak larunbat goizean. Beti bezala, *San Vicente* trujaleko bazkideek “koipeztutako Ogi xerra” antolatu zuten eta bai Oiongo auzokideak bai kanpotik etorritako bisitariak ere hamiketako berezi honen lekuko izan ziren. III. Edizio honetan udalerriko tabernek pintxo txapelketa antolatu zuten eta *Alaves* tabernakoa izan zen garaile.

Arratsalde partean Lantziegok hartu zuen ekitaldien testigua, bertan bisitariak trujala erakusteko prestatu ziren antzeztutako bisitekin gozatzeko aukera izan zuten; erabateko arrakasta!! Lantziegoko ekitaldiak Arabako Errioxako olioaren dastaketa batekin eta gozogile baten *masterklass*arekin borobildu ziren.

Eguna hotza eta euritsua esnatu zen Moredan; hala ere, jendea animatuz joan zen eta berehala jendez bete zen baserriko produktuen azoka. Moredan antolatu ziren ekitaldien artean “Arabako Errioxako Olioaren laguna” sariaren banaketa egin zen; aurten *slow-food* elkarteak izan zen saritua. *Slow-foodeko* tailerra, *La Equidad* trujalera antolatutako bisitak, Olio eta olibondoei buruzko argazki erakusketa, paella herri-dastaketa, “zure pisua oliotan” zozketa eta gainontzeko ekitaldi guztiak Arabako Errioxako III. Oliba Olioaren jai bukaera guztiz borobila izatea lortu zuten.



Arabar Errioxako eta inguraldeko paisaia toponimikoak itxura nabaria dauka gaur egun. Mendebaldeko muturrean Bastidan, Buradon Gatzagan eta San Vicenten euskal toponimo *garden* asko aurkitzen dira, baina erdialdean eta ekialdean mota honetako izenak oso eskasak dira, batzuetan aztergaitz xamarak izan ere. Beste kasu batzuetan, esaterako *Assa* eta *Bihurko* herrietan bezala, jatorria euskalduna dela badirudi ere, eite «fossilizatu» erakusten dute, izen hauek aro zahar-zahar batetik iritsiko bailiran. Are ekialderantzago, euskal toponimiak errekupeazio txiki bat manifestatzen du, baina harantzago, Ebro ondoko lurretan, hutsune handia hedatzen da.

Egoera hau azaltzeko hipotesi posibleren bat eskaini da. Baina egia esateko, Sonsierrako euskararen historia osoa ez dago oraindik batera argiturik. Datuak pobreak dira, eta onomastikatik eta toponimiatik atera daitezkeen aztarnak muga handiak daukate. Hala eta guztiz ere, honako artikulua honetan gaiaren azterketa berri bat egiten saiatuko gara, elementu berezi batzuk begiratzen.

Hasteko, fidagarritzat eman ditzakegu zenbait ideia. Lehena, azken bost mendeetan eskualdeko toponimiak ez ditu aldaketa larriak jasan. Espainiar estatu modernoa sortzean, udalek euren artxibo eta katastro lokalak egonkortu zituzten eta herri bakoitzeko toki-izen gehienak dokumentu idatzitan gordetik geratu ziren. Zalantzarik gabe denborak eta beste faktoreek toponimo txikiren batzuk desagerrarazi dituzte, baina orokorrean azken bost mendeetan toponimia nahiko finkaturik egon bide da. Gaurko paisaia toponimikoa, beraz, ezin izan daiteke azken mende hauetako jazoera historikoen ondorioa eta prozesu zaharragoetarik datoz.

Baldin atzera atzeraxeago bagoaz, XIII-XIV. mendeetan lehen artxibo municipalak agertzen hasi ziren, zeren dokumentazioa ordurako ez zegoen monasterioetan bakarrik atxikirik eta gero eta ugariago egin zen. Gainera, errolda zabalagoak eta zehatzagoak errealizatzen hasi ziren eta horregatik pentsa dezakegu une haietan toponimia egonkortzen ari zela. Ziurrenez gaur ikusten dugun paisaia toponimikoa lipar haietarik heldu zaigu, hau da, mende haietako egoera linguistikoaren *gutxi gorabeherako fotografia* izan liteke.

Jakina denez, une horietan eskualdea Nafar Erresumaren menpean zegoen aspalditik. Xehetasun hau kontutan edukirik, ez dirudi Sonsierrako toponimian ikusten den desberdintasun sakona egoera horretarik datorrenik, zeren nafar menperatzea nahiko erregularra izan zen eta horregatik toponimiak itxura berdinduxea erakutsiko luke.

Baldin berriro atzerago bagoaz denboran, nafar kontrola gutxienez X. mendetik gauzatu zela aurkitzen dugu. Garai hartako datuak hagitz eskasak dira eta ez dakizkigu gauza ziur gehiegi. Are lehenago, islamiar konkistaz gero, Sonsierrako eskualdea apur bat “linboan” geratu zen eta aurreko garaiei buruz ere ez dugu datu ugarririk. Arkeologiaren bidez, ordea, argi dirudi lurraldea ez zela jende gaberik aro bisigotikoan, eta herrixka txikien kopuru handia bide zegoen. Hots, populazioa gaur baino askoz hedatuagoa zebilen, etxe-talde txiker ugarritan sakabanatua.

Nire ustez, are atzerago joan behar dugu Sonsierrako paisaia toponimikoaren jatorria ezagutzeko. Ikuspuntu hau hipotesi hutsa da, noski, beste soluzio batzuk egon litezkeelarik, bana artikulua honetan ez naiz larregi luzatuko eta laburzki azalduko dut neure iritzia.

Lehen puntua. Eskualdeko toponimoen banaketan xehetasun garrantzitsu bat daukagu, txikia bederen, aski argigarria dena: Samaniegoko udalerrian *Languiz* izeneko toki-izen bat dago zein, lehen begiratuan, *-i(t)z* atzizkiak amaituriko arabar, bizkaitar eta nafar toponimoen zerrendan sartuko bailitzateke, normalean aurreko partean pertsona-izen bat daramatenak:

Dordoniz, Berriz, Arroniz, eta abar. *Languiz* hasiera batean agian **Lankis* edo horrelakorik izan bide zen.

Honetaz gain, ekialdera bagoaz, *Lanciego* herria daukagu, agian **Lankeko*- zahar batetik datorrena. Hemen sotiltasun nabaria daukagu: *Languiz*-ek eta *Lanciego*-k erro bera ekar lezake, baina lehen kasuan **toponimoa euskal fonetikaren eraginpean egon zitekeen (-nk- > -ng- *eboluzioa sortzen duena*)**, eta aitzitik bigarren kasuan **herriaren izena erromantzearen edo erdara zaharraren eraginpean aldatuko zatekeen (-ke- > -c(i)e-)**. Fenomeno hauek ilustratzeko, askotan Nafarroan ere gertatzen den adibide tipikoa jarri ohi da: *Marcilla* eta *Markelain* herrien izenak biak *Marcelus* latindarretik datoz, baina bata erdal giroan deformatua eta bestea, berriz, euskal alde batean. Baldin egiatan *Languiz* eta *Lanciego* erro beraz sortuak izan baziren, xehetasun ttipi honek frogatuko luke ezen gaur toponimian ikusten den banaketa (mendebalde euskalduna, erdialde eta ekialde erdaldunak) nahiko aspalditik etor daitekeela, barruko muga linguistikoak egonkorak izan direlarik.

Lantziego-ren izenak beste kontu bat dakarkigu: Sonsierran *-iego* atzizki argi bat daukagu *Samaniego*-n eta *Eltziego*-n ere agertzen dena. Ziurrenez gazteleraren atzizki bera da *veraniego*-n, *mujeriego*-n, *palaciego*-n eta horrelako hitzetan behatzen dena. Bere jatorria indoeuropar-hispaniar-zeltikoa da, erromatar garaian *-eko* zelarik (*-ecus*, *-ecum*, *-ecos* eta antzekoak idazkuntan), testu arkaikoenetan ikusten den *-aiko* forma batetik datorrelarik. Gainazaleko antzekotasunagatik ere, *-eco* indoeuropar hau ez litzateke *-(e)ko* atzizki euskaldunaren aurrekari zuzena. Hortaz, *Lantziego*, *Samaniego* eta *Eltziego* fundazio txiki zaharrak bide dira, erromatar garaian (ala lehentxeago) jende zeltiberieradunek fundatuak.

Arabian atzizki toponimiko eta onomastiko beraren beste adibide bat daukagu, *Berberiego* herri abandonatuan, Done Bikendi Haranaren alboan. Kasu honetan argi dirudi erroan *Barbarus* pertsona-izen latindarra daukagula (eta horregatik, *Berberiego* < **Barbarecu*-k 'Barbarus zeritzon gizon baten herria' esan nahiko luke), baina Sonsierrako kasuetan kontua misterioitsuagoa da.

Samaniego-ren izenean agian *samano*- erroa legoke, Autrigoniako *Portus Samanus*-en ere agertzen dena, gaur *Sámano*-n oraindik bizirik, Laredoren ondoan. *Samano*- autrigoienean beste izengoiti tribal bat izan zitekeen eta beraz, *Samaniego* < latinez **Samanecu*- (<**Samanekom* zeltiberieraz?) izenak '«samano» baten herrixka' esan nahiko luke. Hizkuntza zeltikoetan *samo*- erroa dago, 'uda' eta 'lasai, atsegin' adierazten duena, eta honetaz gain, *samani*- / *samoni*- erroa ere badaukagu, 'biltzarre, batzarre' esan-nahiaz. Aukera hauen artean beharbada 'lasai, atsegin' esangura egokiena izan liteke. Dena dela, onomastika zeltikoan oso ugariak dira mota honetako deribatuak: *Sama*, *Samianta*, *Samicus*, *Saminia*, *Samminus*, *Sammonius*, etc.


Lantziego eta *Languiz*-erako, *lanka*- erro zeltiko ezaguna daukagu, Galiako latinean agertzen dena *lanca* bezala, 'haran txikia, errekatxo, erreka ohea' adieraziz. *Lantziego*-ko kasuan nahiko egokia litzateke esan-nahi hau, herria arroaren ertzean egoteagatik. Hala eta guztiz ere, erro antroponimiko baten egotea ezin dezakegu bazterturik utzi, hots, bi toki-izenak '**Lanko*- zeritzon gizon baten herria' bezala ulertzea, bai *Lantziego* bai *Languiz*-en. Azken kasuan, *Eltziego* toponimoan, erroa **elko*- 'txar' izan liteke, agian pertsona-izen bat: *Eltziego* < **Elkeku*- (< **Elkekom*?) 'Elko- zeritzon gizon baten herrixka', baina 'arlo txarra' esangura gaitzetsi gabe. Konplexua da, beraz, interpretazio zehatza jakitea.

Hala ere, gauza argi bat atera dugu aztertze honetarik: *Samaniego*, *Eltziego* eta *Lantziego* mundu zeltikoaren ondorio zuzenak dira. Gainera, haien posizioak mapara badaramatzagu, aurki ikusiko dugu ezen hiruren artean triangulu nabari bat osatzen dutela, Laguardiaren inguruan. Gogora dezagun ezen herri honetarik distantzia eskasean La Hoyako aztarnategi zeltiko garrantzitsua kokatzen dela, eta inguraldeetan ere «Matres» jainkosa zeltikoei eskainiriko aldare bat aurkitu zela. Hegoalderago, Asan beste idazkun bat ediren zen, non

Tfiki-ffaka 2014

«attesuclo»-tarren gentilitatea aipatzen baita. Gentilitateak herri zeltikoen artean organizazio familiar garrantzitsuenetako batzuk ziren eta gunean honelako zerbait agertzea ez da kasuala, erromatar aroan eskualdea sakonki zeltizatua zegoela erakutsiz.

Mapa berean *Uara*-ren aztarnategiaren posizioa ere jartzen badugu (*Uara* beroien hiriburu zaharra zen, eta bere izena gaurko *Varea*-n, Logroño ondoan, mantendu da), eta gutxi gorabeherako bederatzi kilometroko bi zirkulu marrazten baditugu, begiratuko dugu zein ongi egokitzen den espazio hau euskal toponimo eskaseko gunearekin. Hau da, zeltizazioak sortu ahal izan zuen eskualde honen lehen deseuskalduntze handia.




Zeltak ez ziren herri organizatuak, erromatarren antzera. Ez zituzten inperio handiak sortu eta normalean tribu txikitik banatuak ohi zeuden. Gutxi dakigu nola hedatu ziren euskal alde zaharretan zehar, baina ziurrenez puntu konkretu batzuetan instalatuko ziren, eta toki haietarik talde txiki bakoitzak inguruko lurraldeak menperatuko zituen, gune basatietan eta menditsuetan haien eragina askoz txikiago izango zelarik eta alde hauetan euskaldun zaharrek euren hizkuntza mantenduko lukete. Agian La Hoyako eta Uarako gotorlekuetan bi talde edo familia garrantzitsu ezarri ziren eta handik inguraldea kontrolatuko zuten gero eta indar handiagoz. Prozesu konplexu hartan aldaketa linguistikoa ere bultzatuko zuten, errazagoa eta azkarragoa izango zena hurbileko jendeen artean (morroiak, jopuak, mirabeak), baina mendebaldeko gunean hango artzainek eta nekazale apalek eragin txikixeagoa jasanen zuten. Gainera, puntu hartan jende haiek Arabako eta Errioxako biztanle euskaldun zaharrek harreman estuago edukiko zuten, euskara arkaikoaren mantentzera lagunduko zuena. Samaniego izango zen batzuen eta besteen muga ahula: han toponimo nagusi zeltiko bat daukagu baina aldi berean *Languiz* toki-izenak euskal substratu fonetikoren existentzia frogatzen du, eta hortaz hantxe hasiko zen euskaldun zaharren nagusitasuneko aldea.

Berberiego-ren kasua aztertzen badugu oso egoera antzekoa aurki dezakegu. Han ere onomastika zeltiko ugaria agertzen da (konkretuki Kontrastan eta ondoko Lanako ibar nafarrean), eta gainera Arabako hego-ekialdeko ertz honetan gune askotan euskal toponimia oso eskasa da (mapan ilunez marraztu dugu). Iparralderantzago, Okarizen, hiru aldiz agertzen da -eco atzizkia erromatar hilarrietan eta horregatik ziurtasun osoz baieztatu dezakegu arabar

Tfiki-ffaka 2014

eskualde hau aski zeltizatua izan zela, euskal toponimoen dentsitate baxua prozesu zahar haren ondorioa bezala agertuz.



Laburbilduz, honako hau izan liteke egoera konplexuaren eboluzioa. Hasiera batean Sonsierran euskal populazio arkaiko bat egongo zen, beharbada artzain eta nekazale megalitikoaren azken oinordekoak. Erromatarrek heldu baino mende gutxi batzuk lehenago, populazio zeltiberiar bat kokatuko zen La Hoyako hiri zaharrean, eta handik familia aristokratikoek menperatuko zituen inguruko lurraldeak, haien hizkuntzaren ezaguera eta erabilera hedatuz. Familia hauen artean ziurrenez attesuclotarren gentilitatea zegoen. Testuinguru hartan harremanak nahiko konplexuak izango ziren, eta euskaldun zahar asko elebidunak bide ziren. Uarako eta La Hoyako gotorlekuen aldean zeltiberiera

nagusituko zen baina eragin hau ez zen hedatzen ezpada zirkulu mugatu baten barruan, eta mendebaldeko lurretan, Samaniegotik aurrera, euskal populazio batzuk bide zeuden, Errioxakoekin eta Arabakoekin sakonki erlazionatuak eta Haroren eremu euskaldunaren orbitan. La Hoya-Laguardiako zirkuluaren barnean azken talde euskaldun banaka batzuk geratuko ziren, zeltizazioko bidean. Agian Assa, Bizcarcos eta Bihurko bezalako izenak haien arrastoak izan daitezke, baina Murriarte bezalako izenek berrixeagoak dirudite, beharbada Erdi Aroko Bastidaldetik mugimendu ttipien ondorioa. Inguruko beste tokietariko mugimenduak ere gertatu ahal izan ziren, bai Errioxatik bai Arabatik.

Antzintatera itzuliz, talde etsairen batek La Hoyako hiria arrasatu zuen (Kristo aurreko III. mendean) baina ordurako erromatarrek Iberiar Penintsulan sartzen ari ziren, eta Laguardiako arloa eskualdeko zentro neuralgiko berria bihurtu zen. Hemendik, agian erromatar aroan, agian lehentxeago, zentro horren eraginpeko auzo edo etxaldeak fundatu ziren (*Lankeko-, *Samaneko- eta *Elkeko-), denboraren buruan gaurko herrien jatorriak, aztarna zeltikoa Arabako hego-ekialdeko gunean ere nabaritu zelarik.

Erromatar menderatzearen hasieran zeltiberieraren erabilera mantenduko zen, zeren erromatarrek ez zituzten behartzen menperaturiko herriak latina hartzera, eta horregatik -eko atzizkiak zirkulu topónimo hauek sortu ziren. Hala ere, zeltiberieraren erroak eta deklinabideak latindarren txit antzekoak ziren, eta ziurrenez nahiko erraza izan zen populazio zeltikoentzat hizkuntza berria adoptatzea, latinaren erabiltze orokorra azkar adoptatuz. Euskaldun zaharrentzat apur bat zailagoa izango zen prozesua, eta horregatik (baita haien bitzta apalxeagoagatik ere) mantenduko zuten euskara eskualdean, batez ere mendebaldeko bazterrean.

Musulmanak lehenik eta nafarrak geroago heldu zirenerako, Laguardian eta Bianako aldean populazio erromantze garrantzitsua egongo zen sartaldeko talde euskaldunekin batera, elebitasuneko gradu ezberdinetan, euskararen hiztunak dekadentzian eroriz batez ere XIII. mendetik aurrera.

Izena: Aitor • Jaioturtea: 1976 • Nongoa: Beasain • Lanbidea: Irakaslea
• Zaletasunak: txirrindularitza, mendia, eskia, bertsolaritza, irakurtzea, zinema, musika, poteoa, sukaldaritza...



Noiz eta zer dela eta heldu zinen Arabako Errioxara? Zenbat denbora egon zara Arabako Errioxan?

2002ko irailean, lanean ari nintzen informatika-enpresan ez nengoen gustura eta Euskaldunon Egunkariko iragarki bati erantzunez Ikastolako IKT dinamizatzaille posturako aurkeztu nintzen. Aukeratu egin ninduten, eta lau ikasturte egin nituen Assa ikastolan.

Eskualdean bizi zinen bertsolaria zinen eta horregatik ikusi izan zaitugu komunikabideetan harrez geroztik askotan. Euskal Herriko txapela geroz eta gertuago daukzula ematen du, ezta?

Ez dakit ba zer esan, hitz handiak dira horiek. Maila izugarria dago, eta urte asko daramatzat txapelketan parte hartzen. Desgaste handia da, eta amaiera ere gero eta gertuago dago... ez dakit 2013ko finalean ez ote nintzen nire mugetara iritsi. Ikusiko dugu.

Azken urteotan bertso eskola sortu da Arabako Errioxan. Nola ikusi duzu fenomenoak kanpotik? Zer pentsatzen duzu Arabako Errioxako eta Arabako bertsolaritzaren bilakaeraz?

Pozgarria da euskararen biziraupen eta berreskurapena bera eguneroko erronka den tokian halako ekimenak sortzea. Askotan Gipuzkoatik oso urruneko bezala ikusten dira

Arabar Errioxa bezalako guneak, baina txalogarria da euskal giroan bizitzeko grina hori. Euskarak berak izan duen bilakaeraren modura hemendik zenbait urtera horren emaitzak ikusiko direla iruditzen zait, bai Arabar Errioxan eta bai Araban, bai bertsolaritzan eta baita kaleko euskararen presentzian ere.

Eskualdeko euskararen normalizazioan bertsoak zeresan handia izan dezakeela iruditzen zaizu?

Baietz uste dut. Hizkuntzarekin jolas egitea da, eta bereziki jende gaztea euskarara erakartzeko tresna egokia iruditzen zait. Bertsoa beti egon da festa eta ospakizunekin lotuta, eta Arabar Errioxan inon baino lehengai hobeak dituzue horretarako.

Ezagutu zenuen euskararen egoera Arabako Errioxan hemen izan zinenean, aurrera egin dela iruditzen zaizu?

Ikusi izan ditut ikasle ohiak gerora, tokatu izan gara han eta hemen. Haiekin euskaraz hitz egiteak poza ematen du, eta egunerokotasunean erabilera zenbateraino igo den ez dakidan arren, argi dago egiteko gai den jende gehiago dagoela lehen baino. Hizkuntza ezagutzen duenak soilik aukera dezake, eta erabilera ere haziko da erabiltzeko aukera duen gero eta jende gehiago dagoen heinean.

Zer egin dezake Ttiki Ttaka elkartearen zure ustez eskualdean euskararen egoera hobetzeko? Nondik jo beharko genuke?

Ez naiz ni izango distantziatik aholkuak ematen hasiko dena. Ez dirudien arren, inguru hauetan ere hizkuntzaren erronka biziraupena da, eta orain zenbait urte hemengo elkarteek hartu zuten bideak nik baino gehiago erakuts diezaioke Ttiki-ttakari; egin dituzten akatsetatik ikasi eta asmatu duten gauzetan saiatzeko. Dena den, kaleko giroa gakoa dela uste dut. Herriko plazan

Tfiki-ffaka 2014

ez dakienak ere entzun egin behar du, bere herrian euskara badela ohartu.

Gipuzkoan bizi izanda, zer bota duzu faltan, edo zer da burura gehien etortzen zaizuna?

Asteartetako afariak (kar kar). Egia esan etxetik gertu egoteak ez du preziorik, baina zerbait nabarmentzekotan patxada nabarmenduko nuke. Denboraren joana ezberdina da Beasainen

eta Lapueblan. Orain askotan joaten naiz bizikletan edo oinez mendira patxada bila, eta Arabar Errioxan berez aurki daiteke hori. Batzuetan gehiegi ere bai, ez dut ukatuko.

motzetik

Nor gonbidatuko zenuke afaltzera? Zergatik? Harremana galduta dudan aspaldiko lagun bat, fakultatekoak, esaterako. Nire bizitzatik joaten errazegi utzi diodan jendea dagoelako.

Nor ez zenuke gonbidatuko afaltzera? Zergatik? Pertsona eta euskaldun bezala errespetatzen ez nauen edonor, bihotzerrea eragingo lidakeelako.

Liburu bat. Zaldieroaren *De Rerum Natura* bilduma. Irudi sinpleek eta hitz gutxik askotan tomo askok baino gehiago esaten dute.

Abesti bat. *Sorterriko koblak*, J. Sarrionaindia eta M. Laboa

Miresten duzun pertsona bat. Ez naiz inor miretsi zalea, baina Killian Jornet, adibidez.

Zerk pozten zaitu? Elurrak

Eta triste jarri? Denbora joanak

Zerk ematen dizu beldurra? Bizipoza galtzeak

Zerk haserretzen zaitu? Euskaraz bizitzeko jende askoren ezaxolak

Ardoa ala saqardoa? Ardoa




denborapasak


asmakizunak

1. Botilaren muturrean naukazu, eta ezinezko da edatea. Baina ni askatzeko hobe duzu bi ezpainak ongi ixtea.
2. Zaldun bat sartzen da herri batean ostiralean, pasatzen dira hiru egun eta ateratzen da berriro ostiralean. Nola izan liteke?
3. Lagun bakarrak ordubete behar badu zulo bat egiteko, eta bi lagunek bi ordu behar badituzte bi zulo egiteko, zenbat denbora beharko du lagun bakarrak zulo-erdia egiteko?
4. Bart gauean, osaba irakurtzen ari zela, izebak argia itzali zuen. Gela erabat ilun geratu zen, baina osabak irakurtzen jarraitu zuen ezer gertatu ez balitz bezala. Nola liteke?

hieroglifikoak



ZER APURTU DAU ?



txistek

Irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarrizketa:


- Zenbat hezur dauzka zure gorputzak?
- 208, jauna. – erantzun du ikasleak.
- Burugorra! Ez al nizun esan atzo 207 hezur bakarrik dauzkala giza gorputzak?
- Bai, baina ... gaur oliba hezur bat irentsi dut.

Gizon bat txori dendara sartu zen, eta loro elebiduna eskatu zuen. Dendariak hanka bakoitzean soka bana zuen bat erakutsi zion.

- Ezkerreko sokatik tira egin ez gero, euskaraz hitz egingo dizu –azaldu zion saltzaileak- eta eskuinekotik tira egin ez gero, katalanez.
- Aizu, eta bietatik batera tira egiten badiot? -galdetu zion bezeroak-.
- Zozoa halakoa! Lurrera joango naiz mokoz aurrera!– erantzun zion loroak-.

Gizon bat medikuarengana joan zen eta esan zion:

- Mediku jauna, arazo bat daukat. Nire puzkarrek ez dute usainik.
- Hori ez da posible. Bota ezazu bat oraintxe bertan!
- PPPPPPPPPPPPPP!
- Hori larria da. Ebakuntza behar duzu.
- Ipurdian?
- Ez, gizona, sudurrean.



erantzunak

Asmakizunak: B hizkia • Zaldia "ostirala" deitzen da • Ezingo du zulo erdia egin, zulo erdirik ezin baita egin. Zuloak handiak edo txikiak dira, baina ez dago zulo-erdirik • Osaba itsua da, eta *Braille* sisteman ari zen irakurtzen.

Hieroglifikoak: pixa • orkatila


non gogoia, han zangoa



irakurle kanpaina

Ttiki-ttaka 2014





tiki
taka



*Bazkide izan nahi baduzu, behealdeko fitxa bete ezazu eta bidali gure helbidera. Kuotari dagokionez, 20 euro dira urtean eta gazteentzat borondatea. Honen truke bidaliko dizugu aldizkaria, informazioa eta ekintza eta bileren berri. **Egin zaitez bazkide!***

Deiturak _____ Izena _____

Jaioteguna _____ Helbidea _____

Herria _____ Pta.Kodea _____ Tfnoa _____

Banku-Aurrezki kutxa _____ Sukurtsala _____

KK edo libreta zkia _____

Data _____

Sinadura